



Aspertxu Asperger eta AEN Bizkaia Elkarte

Tfn: 944810354

Areeta-Getxo

www.aspertxu.com

Bizkaiko Asperger eta AEN Aspertxu elkarte, CONFAE-rekin (Espainiako Asperger konfederazioarekin) elkartuta dago eta 2014ko azaroan inauguratu zen, 2015ean bere kudeaketa administratibo guztia ofizialki burutuz.

Elkartearen sorreratik, Aspertxuk Asperger Sindromea duten pertsonen aintzatespena eta gizarteratzea sustatu nahi izan du, eta, horretarako, helburu horietara zuzendutako jarduera ugari burutu ditu urte hauetan.

2021an Aspertxuk beste urrats bat eman zuen eta bere helburuen artean Asperger Sindromea duten heldu eta nerabeak laneratzeko eta gizarteratzeko programa bat sartu zuen, arrakastaren ondoren funtzionatzen jarraitzen duena

Horretarako, informazio eta sentsibilizazio jardunaldi batzuk egingo dira Hezkuntza zentro, Lanbide Heziketa zentro, Unibertsitate eta enpresa ezberdinekin, eta zentro horietara bisitak egingo dira, Asperger Sindromea duten heldu eta nerabeek lan-irteerak eta gizarte-egoera desberdinak ezagutu ditzaten.

Horregatik, zuengana jotzen dugu, enpresa pribatu gisa, egingo ditugun jardueren berri emateko:

- 1. Sentsibilizazio jardunaldiak enpresekin, Asperger Sindromea duten langileak kontratatze**ko. Asperger Sindromean espezializatutako psikologo profesional batek eta Asperger Sindromea duen eta Aspertxun administrazioan lan egiten duen pertsona batek, 45 minutu inguruko hitzaldia emango dute, **doan**, kontratazio mota horrek dakartzan abantailen berri emateko.*
- 2. Enpresaren instalazioak bisitatzeko aukera**, Asperger Sindromea duten pertsona talde batekin, beren ezagutzarako.*
- 3. Haientzat berariazko tailer batzuk sortzea**, pertsona ahalduntzera bideratuak, laneratzeko. Guztira, 4 tailer izango dira eta gizarte trebetasunak landuko dira.*

Hitzaldia doan jasotzeko edo/eta Asperger Sindromea duten pertsonen **zuen enpresaren instalazioetara bisita bat antolatzeko**, jar zaitetze gurekin harremanetan hilabetea eta eguna zehazteko, **944 810 354** telefonoan edo **info@aspertxu.com** helbide elektronikoan. Goizez eta arratsaldez egin daiteke, Irailetik Abendura bitartean.

Horrez gain, **zuen enpresan lanpostu hutsen bat baldin baduzue** eta hori betetzen lagundu dezakegula uste baduzue, eskertuko genizueke lanpostu hori guri helaraztea, bilatzen ari zareten profilerara egokitzen diren gure programako hautagaien kurrikuluma kudeatzeko eta zuei bidaltzeko.

KORABORATZAILEAK:

